

LANBIDE-GARAPENEN OHIKO DEIALDIA

JARRAIBIDEEN ESKULIBURUA
A1 TALDEA-LEHEN MAILAKO ARRETA
AUTOEBALUAZIO-FASEA

Osakidetza

1. BERTSIOA

EDUKIA

OSAKIDETZAKO LANBIDE-GARAPENENKO OHIKO DEIALDIA (2081/2025 EBAZPENA).....	2
1. EBALUAZIO-PROZEDURA.....	3
2. CURRICULUM VITAE APLIKAZIOKO CURRICULUM- MEREZIMENDUAK.....	4
3. NOLA EGIN AUTOEBALUAZIOA	6
JARDUERA ASISTENTZIALA FAKTOREARI egindako ekarpenak.....	8
LANBIDE-JAKINTZA faktoreari egindako ekarpenak.....	12
INPLIKAZIOA ETA KONPROMISOA FAKTOREARI egindako ekarpenak	17

OSAKIDETZAKO LANBIDE- GARAPENEN OHIKO DEIALDIA (2081/2025 EBAZPENA)

AUTOEBALUAZIO-FASERAKO JARRAIBIDEAK

Onartutako pertsonak **Autoebaluazio Fasean** sartzen dira, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren abenduaren 19ko 2081/2025 Ebazpenaren 6. artikuluan jasotzen den bezala. Autoebaluazioa, alde batetik, faktoreak ebaluatzeko informazio garrantzitsua ematean datza, **Autoebaluazio Fitxaren** bidez, eta, bestetik, autoebaluazioan zehar, curriculum-merezimenduak alegatzean.

Autoebaluazio-fasea **borondatezkoa da**, ez derrigorrezkoa. Onartutako pertsonak informazioa ematen dute, eta beren lanbide-taldearen arabera aplikatu behar zaizkien faktore ebaluagarrien autoebaluazioa egiten da. Gainera, fase horretan, onartutako pertsonak beren curriculum-merezimenduen egoera zein den egiazta dezakete, eta oraindik Osakidetza *Curriculum Vitae*an sartu gabe daudenak erregistratu ahal izango dituzte, baliozkotzeko dokumentazio egokia aurkeztuta. Informazio hori guztia kontuan hartuko da Ebaluazio Prozedurarako, zeina deialdiaren hurrengo fasea izango baita.

1. EBALUAZIO-PROZEDURA

Ohiko deialdian ebalua daitezkeen faktoreak abenduaren 19ko **2081/2025 Ebazpenaren eranskinetan** zehazten dira. Irailaren 22ko 395/2005 Dekretuak, otsailaren 27ko 35/2007 Dekretuak eta abenduaren 26ko 248/2007 Dekretuak ezarritako esparruaren arabera, kasu bakoitzean aplika daitezkeen faktore ebaluagarriak Osakidetzan garapen-maila aitortzeko eskatzen den lanbide-taldearen arabekoak dira.

Honako hauek dira ebaluatu daitezkeen faktoreak:

- **jarduera asistentziala** (A1 eta B1 lanbide-taldeetan), **jarduera eta lanean aritzea** (A2, B2, C eta D lanbide-taldeetan) edo **jarduera, gaitasuna eta betetze profesionala** (E lanbide-taldean);
- **lanbide-jakintza** (A1, A2, B1 eta B2 lanbide-taldeetarako) edo **gaitasuna eta lanbide-jakintza** (C eta D lanbide-taldeetarako);
- **prestakuntza** (lanbide-talde guztientzat);
- **irakaskuntza eta jakintzaren hedapena** (talde guztietarako, eta C, D eta E taldeen kasuan, **berrikuntza** ere sartzen da);
- **ikerikuntza, berrikuntza eta beste merezimendu batzuk** (A1, A2, B1 eta B2 lanbide-taldeetarako soilik), eta
- **erakundearekiko inplikazioa eta konpromisoa** (lanbide-talde guztientzat).

Faktore ebaluagarri horiek hainbat azpifaktoretan artikulatzen dira, eta azpifaktore horiek, aldi berean, hainbat itemetan. Bestalde, faktoreak hiru bloke handitan biltzen dira.

A blokeak faktore hauek biltzen ditu:

- jarduera asistentziala (A1 eta B1), jarduera eta lanean aritzea (A2, B2, C eta D) edo jarduera, gaitasuna eta betetze profesionala (E lanbide-taldean), eta
- lanbide-jakintza (A1, A2, B1 eta B2) edo gaitasuna eta lanbide-jakintza (C eta D).

B blokeak faktore hauek biltzen ditu:

- prestakuntza;
- irakaskuntza eta jakintzaren hedapena (eta C, D eta E taldeetarako berrikuntza), eta
- ikerikuntza, berrikuntza eta beste merezimendu batzuk (A1, A2, B1, B2).

Azkenik, **C blokea** faktore hau da:

- erakundearekiko inplikazioa eta konpromisoa.

2. CURRICULUM VITAE APLIKAZIOKO CURRICULUM- MEREZIMENDUAK

Honako baldintza hauek guztiak betetzen dituzten curriculum-merezimenduak hartzen dira kontuan:

- (1) aplikazioan "**Baliozkotuta**" egoeran dauden merezimenduak dira;
- (2) aplikatu beharreko denbora-tartean sortu diren merezimenduak dira, hau da, aurreko sei edo zazpi urteetan (lanbide-garapeneko I. maila lortu nahi dutenentzat izan ezik; pertsona horientzat denbora osoa hartzen da), eta 2025eko abenduaren 31ra artekoak, 2025eko deialdian onartu izan direnentzat; eta 2022ko abenduaren 31ra artekoak, 2022ko deialdian onartu izan direnentzat; eta 2023ko abenduaren 31ra artekoak, 2023ko deialdian onartu izan direnentzat, eta 2024ko abenduaren 31ra artekoak, 2024ko deialdian onartu izan direnentzat.
- (3) merezimendu horiek berariaz identifikatuta daude 2081/2025 Ebazpenaren eranskinetan, zehazki, B blokean ebaluagarritzat jotakoak, eta, Erakundearekiko lankidetzaz azpifaktoreari dagokionez, C blokean ebaluagarritzat jotakoak.

B blokeko **Prestakuntza** faktorearen ebaluazioan sartzen diren curriculum-merezimenduak honako hauek dira:

- Titulazio Akademikoa.
- Graduondoko titulazioa.
- Etengabeko prestakuntzako jardueretara joatea.
- Ezagutza zabaltzeko jardueretan parte hartzea.
- IT Txartelak.

B blokeari dagozkion **irakaskuntza eta jakintzaren hedapena** faktorearen ebaluazioan sartzen diren curriculum-merezimenduak honako hauek dira:

- Maila akademikoetan emandako irakaskuntza.
- Irakaskuntza Osasun Zientzien espezialitateetan.
- Irakaskuntza graduondoko prestakuntzan.
- Etengabeko prestakuntzan emandako irakaskuntza:
- Bilera zientifikoetan eta dibulgazio-bileretan parte hartzea eta haiek antolatzea
- Artikuluak, liburuak, liburu-kapituluak, aldizkariak eta liburuak argitaratzea.

B blokeko **Ikerkuntza, berrikuntza eta beste merezimendu batzuk** faktorearen ebaluazioan lekua duten curriculum-merezimenduak *Curriculum Vitae* aplikazioko Ikerkuntza/Berrikuntza, *Taldeetan parte hartzea* eta *Beste merezimendu batzuk* ataletan daude kokatuta. Hona hemen curriculumeko merezimendu horiek:

- Ikerkuntzako eta berrikuntzako proiektuak
- Saiakuntza klinikoak eta frogantzako saiakuntzak.

- Doktore-tesien zuzendaritza eta ebaluazioa.
- Ikerkuntza-proiektuen ebaluazioa.
- Sariak eta goraipamenak ikerkuntzari.
- Jabetza intelektuala eta industrial.
- Ikerkuntzako egonaldiak.
- Ikerkuntzako plataformak eta sareak.
- Lizentziako tesina.
- Batzorde, epaimahai eta Osakidetzatik kanpoko beste organo batzuetan parte hartzea.
- Bestelako jarduera/esku-hartze profesionalak.

C blokeari dagokion **Erakundearekiko lankidetz**a faktorearen ebaluazioan sartzen diren curriculum-merezimendu guztiak *Curriculum Vitae* aplikazioko *Taldeetan parte-hartzea* atalean daude. Hona hemen curriculumeko merezimendu horiek:

- Osakidetzako batzorde, epaimahai eta bestelako organo korporatiboak.
- Osakidetzako zerbitzu-erakundeetako batzorde, epaimahai eta bestelako organo batzuk.
- Osakidetzako lan-taldeak.

3. NOLA EGIN AUTOEBALUAZIOA

Hurrengo irudian, A1 lanbide-talderako ebaluazio-eredua erakusten da.

A1 LANBIDE-TALDEKO LANBIDE-GARAPENAREN EREDUA				
BLOKEA	FAKTOREA	AZPIFAKTOREA	Itemak	Ebaluazioa
A BLOKEA	JARDUERA ASISTENTZIALA	Helburuak lortzeko eta betetzeko orientazioa	Errendimenduaren joera Osakidetzaren batez besteko konparazioa Zerbitzuaren batez besteko konparazioa	Profesionalaren ekarpen-fitxak
		Baliabideen kudeaketa eraginkorra	Plangintza eta Antolaketa Baliabideen erabilera	
	LANBIDE-JAKINTZA	Jakintza teknikoa	Arreta espezializatuaren eremuko itemak: - Konplexutasun teknikoa / balioaniztasuna - Autonomia teknikak erabiltzean - Trebetasuna eta gaitasuna - Erreferentziagarritasuna - Protokoloak eta teknikak hobetzea / Berrikuntza Lehen Mailako Arretaren eremuko itemak: - Preskripzioaren kalitatea - Protokoloak eta teknikak hobetzea / Berrikuntza - Erreferentziagarritasuna	
		Traturako trebetasuna	Erabiltzaileekiko harremana Erabiltzailearen gogobetetasuna	
		Doitasun profesionala	Arauak/jarraibideak betetzea Prestakuntza/eguneratze profesionala	
	B BLOKEA	PRESTAKUNTZA		
IRAKASKUNTZA ETA EZAGUTZAREN ZABALKUNDEA				
IKERKETA, BERRIKUNTZA ETA BESTE MEREZIMENDU BATZUK				
C BLOKEA	INPLIKAZIOA ETA KONPROMISOA	Talde-lana	Talde-lana	Profesionalaren ekarpen-fitxak
		Erakundearekiko lankidetzaz	Konpromisoa erakundearen helburuekin Zerbitzuaren/Unitatearen jardueretan parte hartzea Organo, Batzorde eta beste Talde batzuetan parte hartzea	
		Hobekuntzaz bideratzea	Hobekuntzarako ekarpenak Aldaketara egokitzea	Profesionalaren ekarpen-fitxak

Aplikazio informatikoaren *Ebaluazioa* fitxara sartzean, eta deialdi honetako Lanbide Garapeneko ereduaren arabera, hiru fitxa agertuko dira A, B eta C blokeekin.

A blokea, ebaluazio-faktoreekin eta -azpifaktoreekin.

Autoevaluazioa
Eskatzaileek azaroren 27ra arteko epea izango dute curriculum-merezimenduak eta autoevaluazioa bete eta aurkezteko, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ekainaren 19ko 1184/2023 Ebazpenean ezarritakoaren arabera.

A Blokea B Blokea C Blokea

Jarduera Asistentziala

- Denbora-banaketa
- Helburuak Lortu Eta Betetzeko Orientazioa
- Eraginkortasuna Baliabideak Kudeatzen

Lanbide Jakintza

- Jakintza Teknikoa
- Traturako Gaitasuna
- Zorroztasun Profesionala

Baieztazen dut badakidala autoevaluazioa bidali ondoren, ezin izango ditudala aldatu bidalitako datuak.

GORDE ZIRRIKORROA BIDALI AUTOEBALUAZIOA

B blokea, curriculum-merezimenduak *Curriculum vitae* aplikazio informatikoan egin behar direla adierazita.

Autoevaluazioa
Eskatzaileek azaroren 27ra arteko epea izango dute curriculum-merezimenduak eta autoevaluazioa bete eta aurkezteko, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ekainaren 19ko 1184/2023 Ebazpenean ezarritakoaren arabera.

A Blokea B Blokea C Blokea

B blokeko curriculum-merezimenduak (Prestakuntza, Irakaskuntza eta ezagutzaren zabalakundea eta ikerkuntza eta berrikuntza) Curriculum Vitae aplikazio informatikoan alegatu behar dira.

Baieztazen dut badakidala autoevaluazioa bidali ondoren, ezin izango ditudala aldatu bidalitako datuak.

GORDE ZIRRIKORROA BIDALI AUTOEBALUAZIOA

Eta C blokea, ebaluazio-faktoreekin eta -azpifaktoreekin, eta, kasuan kasu, batzorde, epaimahai eta lantaldeetan parte hartzearekin lotutako faktoreekin, curriculum vitaera igorrita.

Autoevaluazioa
Eskatzaileek azaroren 27ra arteko epea izango dute curriculum-merezimenduak eta autoevaluazioa bete eta aurkezteko, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ekainaren 19ko 1184/2023 Ebazpenean ezarritakoaren arabera.

A Blokea B Blokea C Blokea

Erakundearekiko inplikazioa eta konpromisoa

- Talde-lana
- Erakundearekiko lankidetzatza
- Hobetzeko jarrera eta Aldaketetara egokitzea

JARDUERA ASISTENTZIALA FAKTOREARI EGINDAKO EKARPENAK

Lehenik eta behin, **Ordutegi-banaketa** azpifaktorea jasotzen du. Bertan, profesionalak zerbitzu bakoitzari eskainitako denboraren banaketa adierazi behar dute.

Autoebaluazioa
Eskatzaileek azaroren 27ra arteko epea izango dute curriculum-merezimenduak eta autoebaluazioa bete eta aurkezteko, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ekainaren 19ko 1184/2023 Ebazpenean ezarritakoaren arabera.

A Blokea B Blokea C Blokea

Jarduera Asistentziala

Denbora-banaketa

Bete ezazu honako hauei eskainitako denboraren banaketa:

% Ospitalizazioa	% Egunko O.	% Kanpo-kontsultak	% Larrialdiak	% Ebakuntza-gela	% Mialketak
<input type="text" value="0"/>	<input type="text" value="0"/>	<input type="text" value="0"/>	<input type="text" value="0"/>	<input type="text" value="0"/>	<input type="text" value="0"/>

(*) Zehaztu profesionalak beste zein esparrutan lan egiten duen, baita ematen duen denboraren frakzioa ere.

<input type="text"/>	% Beste batzuk (zehaztu)*
<input type="text"/>	<input type="text" value="0"/>

Faktore hori bi azpifaktoretan banatzen da:

- ❖ HELBURUAK LORTZEKO ETA BETETZEKO ORIENTAZIOA
- ❖ EFIZIENTZIA BALIABIDEAK KUDEATZEAN

Horien bidez, Fakultatiboen ekintzen multzoa jasotzen da, erakundearen helburuak eta futsezko emaitzak betentzen laguntzearekin lotuta.

Honako hauen arabera ebaluatzen da:

- Profesionalak bere zerbitzuaren tipologiarako ezarritako **adierazleetan** lortutako asistentzia-jardueraren **helburuak eta emaitzak**.
- **Kalitate-helburuak**, prozesuen eraginkortasun- eta efizientzia-ratioei eta indizeei, eta erabiltzaile/pazienteen gogobetetze-mailari buruzkoak.
- Zerbitzu-erakundearentzat estrategikoak diren **proiektu eta programekin** lotutako **helburuak**.
- **Eraginkortasuna baliabideen kudeaketan**: autoantolatze eta baliabideen erabilera eta aprobetxamendu egokia egiteko gaitasuna.

HELBURUAK LORTZEKO ETA BETETZEKO ORIENTAZIOA

Azpifaktore honek Fakultatiboek lana ondo egiteko eta bikaintasun-estandarren aurrean lehiatzeko duten **jarrerak** jasotzen ditu.

Fakultatiboek **Zerbitzuaren/Unitatearen** asistentzia-eraginkortasuneko helburuak lortzeko egiten duten **ekarpena** ebaluatzen du, eta asistentzia-efizientzia hori osatzen duten adierazleetan egiten duten ekarpena baloratzen du.

Profesionalak bere jardueraren autoebaluazioan egokien jotzen dituen adierazleak aukeratu dituzte. Horretarako, Item eremuan klikatuz, adierazle bat hautatuko du lerro bakoitzean, ekarpen-maila

aukeratuz. Profesionalak egokitzen jotzen dituen informazioa/datuak/argudioak eman ahal izango ditu. Pertsonak **ekarpen-maila** "handia" hautatzen badu, ebidentziak eransteko eskatuko dio aplikazioak.

Autoebaluazioa
Eskatzaileek azaroaren 27ra arteko epea izango dute curriculum-merizimendurik eta autoebaluazioa bete eta aurkezteko, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ekainaren 19ko 1184/2023 Ebazpenean ezarritakoaren arabera.

A Blokea B Blokea C Blokea

Jarduera Asistentziala

Denbora-banaketa

Helburuak Lortu Eta Betetzeko Orientazioa
Baloratu zenbateraino lagundu diezun zure zerbitzuak/unitateak kortutako emaitzei

Itema	Balorazioa justifikatzen duten informazioa/datuak/argudioak ematea	Erantsi
Bisitak erantzun-irizpidea		Izena Tm Utzi fitxategiak eransteko edo bilaketa
Konts. ez-presentzialen %/Guztirakoa		Izena Tm Utzi fitxategiak eransteko edo bilaketa
Bisitak etxean/egun		Izena Tm Utzi fitxategiak eransteko edo bilaketa

ERAGINKORTASUNA BALIABIDEAK KUDEATZEAN

Azpifaktore honek kontuan hartzen du profesionalak **jarduerak planifikatzeko, baliabideak behar bezala antolatze**ko eta erabiltzeko eta jardueran gertatzen diren gorabeherak kudeatzeko duten gaitasuna, jardueran eta **aprobetxamenduan ahalik eta eraginkortasun** handiena lortzeko.

Autoebaluazioa
Eskatzaileek azaroaren 27ra arteko epea izango dute curriculum-merizimendurik eta autoebaluazioa bete eta aurkezteko, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ekainaren 19ko 1184/2023 Ebazpenean ezarritakoaren arabera.

A Blokea B Blokea C Blokea

Jarduera Asistentziala

Denbora-banaketa

Helburuak Lortu Eta Betetzeko Orientazioa

Eraginkortasuna Baliabideak Kudeatzen

- Antolakuntza eta plangintza**
- Baliabideen erabilera**

Bi itemen balorazioa banakatu da:

1. ITEMA ANTOLAKETA, PLANGINTZA ETA ARAZOAK KONPONTZEA
2. ITEMA BALIABIDEAK ERABILTZEA

1.ITEMA ANTOLAKETA, PLANGINTZA ETA ARAZOAK KONPONTZEA

Profesionalak bere edo taldeko beste profesional batzuen **jarduerak antolatzeko, programatzeko eta planifikatzeko** duen gaitasuna baloratzea, bai eta jardueran gertatzen diren gorabeherak eta ezustekoak **konpontzeko autonomia- eta eraginkortasun-maila** ere.

Honako hauei buruzko jokabideak jasotzen ditu:

- Bere burua eta beste profesional batzuen jardueraren autoantolaketa. Eraginkortasuna plangintza-jardueretan, planak eta epeak betetzean. Gorabeherak aurreikustea eta arazoei aurrea hartzea.
- Ekimena, autonomia eta jardueraren gorabeherak konpontzea. Ezustekoen aurrean erreakzionatzeko, kudeatzeko eta ebazteko gaitasuna.

2. ITEMA BALIABIDEAK ERABILTZEA

Profesionalak bere jarduerarako beharrezkoak diren **materialak eta baliabideak** antolatu, erabili eta material horien erabilera egokia mantentzeko duen gaitasuna baloratzea, baita material eta baliabide horiek modu eraginkorragoan aprobetxatzeko duen gaitasuna ere.

Honako hauei buruzko jokabideak jasotzen ditu:


- Jardueran erabilitako materialak, tresneria, instalazioak eta baliabide-multzoa eraginkortasunez erabiltzea. Baliabideak ahalik eta ondoen aprobetxatzeko eta optimizatzeko interesa eta orientazioa izatea.
- Jardueran erabilitako materialak, ekipoak, instalazioak eta baliabide-multzoa antolatzeko, egoki kontserbatzeko eta hobetzeko jarduerak. Jardueran erabilitako informazioak, erregistroak eta dokumentazioak antolatzeko, eguneratzeko, egoki kontserbatzeko eta hobetzeko jarduerak.

LANBIDE-JAKINTZA FAKTOREARI EGINDAKO EKARPENAK

Ezagutza, trebetasun, esperientzia eta jarreren multzoa, pertsonal Fakultatiboak eskuratu eta bere jarduera asistentzian sartu duen **oinarrizko kualifikazioa** osatzen duena. Bere **ezagutza profesionala** osatzen du eta bere lan profesionala egiteko modua zehazten du.

Hiru azpifaktoreen bidez ebaluatzen da:


- ❖ JAKINTZA TEKNIKOA
- ❖ TRATURAKO GAITASUNA
- ❖ ZORROZTASUN PROFESIONALA



The screenshot shows a form titled 'Lanbide Jakintza'. It contains three expandable sections, each with a plus icon and a label: 'Jakintza Teknikoa', 'Traturako Gaitasuna', and 'Zorroztasun Profesionala'.

JAKINTZA TEKNIKOA

Jakintza teknikoak da ebaluatutako pertsonen beren diziplina-eremuko berezko prozesuak eta teknikak menderatzea, autonomiari, kalitateari, efizientziari, trebetasunari eta garatzeko trebetasunari dagokienez, bai eta ezagutza profesionalen eguneratzearen eta eguneratze-mailaren balorazioa ere.



The screenshot shows a form titled 'Lanbide Jakintza'. It contains two expandable sections, each with a plus icon and a label: 'Ospitale-arreta' and 'Lehen Mailako Arreta'. Above the main section, there are tabs for 'A Blokea', 'B Blokea', and 'C Blokea'. Below the main section, there is a section for 'Jarduera Asistentziala'.

Bi azpifaktoreen bidez ebaluatzen da:

- ITEM 1: OSPITALE-ARRETA
- ITEM 2: LEHEN MAILAKO ARRETA

Profesional bakoitzak bere lanbide-jarduerari dagozkion eremuak beteko ditu, hau da, profesionalak ospitale-arreta eskaintzen ez badu baina lehen mailako arreta eskaintzen badu, Lehen Mailako Arretako eremuak bete beharko ditu, eta ez Ospitaleko Arretakoak; aitzitik, pertsonak ospitale-arreta eskaintzen badu, eta ez lehen mailako arreta, Ospitaleko Arretako eremuak soilik beteko ditu; azkenik, pertsonak ospitaleko zein lehen mailako arreta eskaintzen badu, biak beteko ditu.

ITEM 1: OSPITALE-ARRETA

Honako hauei buruzko jokabideak jasotzen ditu:

- **Konplexutasuna/balioaniztasuna.** Erabilitako aldagai-motak, aldagai horiek menderatzeko **zailtasun-maila**, ikaskuntza zailen beharra, aldagai horiek aplikatzeak dakarren aurreikusezintasun- eta arrisku-maila. Erabiltzen dituen jardueren edo tekniken **zabaltasuna**. Konplexutasuna sortzen duten eremuak dira, besteak beste: patologiak, paziente motak, aparatu motak, tekniken berritasuna, ikaskuntza-kostua.
- **Autonomia lanbidean jardutean eta teknikak erabiltzean.** Jardueratik eta eskatutako eraginkortasunetik eratorritako **erantzukizunak** bere gain hartzeko gaitasuna. Era berean, **erabakiak hartzeko autonomiarekin** eta taldean jardutea eskatzen duten lanetan (zirujau nagusia, 1., 2. eta 3. mailako laguntzailea) hartutako **erantzukizunarekin** lotuta dago. Dagokion mailan erabilitako teknikak **segurtasunez maneiatzeari** (euskarririk gabe): diagnostikoa, tratamendua, proba osagarriei buruzko erabakiak, alta-unea.
- **Trebetasuna eta abilezia.** Jarduera egiteko **erraztasuna, biziakortasuna** zeregina garatzean eta teknika espezifikokoak aplikatzean.
- **Erreferentziagarritasuna.** Espezialitate edo teknika espezifiko jakin baten **domeinu-maila berezia**, bai eta pertsonal Fakultatiboaren domeinu horrek **gainerakoekiko desberdintasun berezia** dakarren eremua ere; beraz, **erreferentzetzat** hartzen da. Honako hauekin lotuta dago: ezagutza bereziak eta esperientzia frogatua, bigarren iritzien eskaerak, interkontsultak, gutxi hedatutako teknikak.
- **Protokoloak eta teknikak hobetzea/berrikuntza.** Pertsonak **protokolo klinikoak hobetzeko eta berritzeko** egiten duen ekarpena ulertzen du. Protokoloen konplexutasunarekin, protokoloen arteko funtzionaltasunarekin, onartutako lidergoarekin eta abarrekin lotuta dago.

Lanbide Jakintza

Jakintza Teknikoa

Ospitale-arreta

Hautatu zure ustez konplexutasun tekniko handiena duten 3 jarduerak, eta identifikatu horietako bakoitzerako erabilitako teknikak, berekin dakartzan konplexutasun-aldertiak, egiten den autonomia- edo erantzukizun-maila eta horietan ematen den dedikazioaren ehunekoa.

Jarduerak	% dedikazioa	Autonomia/erantzukizun maila	Erabilitako teknika esanguratsuak edo garrantzitsuak
<input type="text"/>	<input type="text" value="0"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
<input type="text"/>	<input type="text" value="0"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
<input type="text"/>	<input type="text" value="0"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>

Hautatu maiztasun eta dedikazio handienaz egin dituzun 5 jarduerak (diagnostikoak, tratamenduak, probak edo bestelakoak), eta identifikatu horietako bakoitzerako erabilitako teknikak, berekin dakartzan konplexutasun-aldertiak, egiten den autonomia-maila edo erantzukizun-maila eta horietan ematen den dedikazioaren ehunekoa.

Jarduerak	% dedikazioa	Autonomia/erantzukizun maila	Erabilitako teknika esanguratsuak edo garrantzitsuak
<input type="text"/>	<input type="text" value="0"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>

ITEM 2. LEHEN MAILAKO ARRETA

Honako hauei buruzko jokabideak jasotzen ditu:

- **Preskripzioaren kalitatea.** Lehen Mailako Atentzioko pertsonal fakultatiboak Osakidetzako LMAko mediku guztien ebaluazioan lortu duen kalitate-maila. **Indize bakar** horrek Kudeaketa Klinikoko Kontratuan indize hori osatzen duten adierazle berberak biltzen ditu, EFGren preskripzioa izan ezik.
- **Erreferentziagarritasuna. Espezialitate edo teknika espezifiko jakin baten** menderatze-maila berezia eta pertsona menderatzen duen eremua, **gainerakoan aldean bereizketa berezia dakarrena**; beraz, erreferentetzat hartzen da. Honako hauekin lotuta dago: ezagutza bereziak eta esperientzia frogatua, bigarren iritzien eskaerak, interkontsultak, gutxi zabaldutako teknikak, eta abar.
- **Protokoloak eta teknikak hobetzea/berrikuntza.** Pertsonal Fakultatiboak **protokolo klinikoak hobetzeko eta berritzeko** egindako ekarpena biltzen du. Itemak zerikusia du protokoloen konplexutasunarekin, protokoloen funtzionaltasunarekin, onartutako lidergoarekin eta abarrekin.

Jakintza Teknikoa

Ospitale-arreta

Lehen Mailako Arreta

Profesionalak egindako oharrak kalitate-adierazleen emaitzei eta jorari buruz (gehienez 1000 karaktere).

Parte hartu duen protokolo edo prozesu hobetuak edo berrituak

Zer protokolotan izan zara zuzendaria?

Zer protokolotan parte hartu duzu?

Aplikazio-eremua

Parte hartu duen protokolo edo prozesu hobetuak edo berrituak

Zer protokolotan izan zara zuzendaria?

Zer protokolotan parte hartu duzu?

Aplikazio-eremua

Parte hartu duen protokolo edo prozesu hobetuak edo berrituak

Zer protokolotan izan zara zuzendaria?

Zer protokolotan parte hartu duzu?

Aplikazio-eremua

TRATURAKO GAITASUNA

Pazientearekiko **harremanaren kalitatea** hartzen du kontuan, pazientearekiko tratuan, **erabiltzaileari/pazienteari/familiari** informazioa emateko moduan, eta haien eskaerei eta **eskakizunei erantzuteko jarreran.**

Bi itemen balorazioa banakatu da:

1. ITEMA: ERABILTZAILEAREKIKO HARREMANA
2. ITEMA: ERABILTZAILEAREN GOGOBEKETZEA




1. ITEMA ERABILTZAILEREKIKO HARREMANA

Erabiltzailearekin/pazientearekin/senideekin **harremanetan jartzeko eta komunikatzeko gaitasuna**, bai eta **eskainitako jarrera, tratua** eta erantzun mota ere.

Itemak honelako jokabideak jasotzen ditu:

- Erabiltzailearekiko/pazientearekiko/senideekiko tratua eta jarrera
- Emandako **informazioaren** kalitatea; informazioa pazienteen ezaugarrietara egokitzeko gaitasuna, eta pazienteen eskakizunei eta beharrei buruzko entzumena eta enpatia.
- Fakultatiboen gaitasuna eta trebetasuna **egoera kritikoetan komunikatzeko**.



2. ITEMA ERABILTZAILEREAREN GOGOBEETETZEA

Medikuek erabiltzaileari/pazienteari/senideei eragindako **gogobetetasun-maila** baloratzen du.

Itemak honelako jokabideak jasotzen ditu:

- Erabiltzailearen/pazientearen/senideen **eskaerak eta eskakizunak ezagutzeko** eta horiei **erantzuteko** interesa.
- Erabiltzailearengan/pazientearengan/senideengan sortutako **gogobetetasun-maila**, baita norberaren jokabidearen orientazioa/egokitzapena ere, erabiltzailearen gogobetetzearen arabera.

Erabiltzailearen/pazientearen/senideen gogobetetasuna ezagutzeko interes esplizitua izatea, bai eta erabiltzaileak erabiltzailearen gogobetetzea lortzera bideratutako hobekuntza-jardueretan egiten duen ekarpena ezagutzeko ere.

Traturako Gaitasuna

Erabiltzailearekiko harremana

Erabiltzailearen gogobetetzea

Hurrengo itemei dagokienez, eta lortu nahi duzun mailan eskatzen diren baldintzak kontuan hartuta, identifika itzazu zure merezimenduak eta ekarpenak:

Itema: Erabiltzailearen gogobetetzea

Ekarpen-maila: Aukeratu

Balorazioa justifikatzen duten informazioa/datuak/argudioak ematea

Erantsi: Izena, Tm

Utzi fitxategiak eransteko edo bilaketa

ZORROZTASUN PROFESIONALA

Este Subfactor tiene en consideración el **grado de cumplimiento de las normas**, procedimientos y protocolos por el personal Facultativo así como el seguimiento de las directrices y **políticas de la Organización** en relación a la **prescripción, materiales**, derivaciones, pruebas etc.

Este Subfactor se evalúa en base a dos ítems:

- 1.ITEMA ARAUAK/GIDALERROAK BETETZEA
- 2.ITEMA PRESTAKUNTZA/EGUNERATZE PROFESIONALA

Jarduera Asistentziala

Lanbide Jakintza

Jakintza Teknikoa

Traturako Gaitasuna

Zorroztasun Profesionala

Arauak/gidalerroak betetzea

Prestakuntza/eguneratze profesionala

1.ITEMA ARAUAK/GIDALERROAK BETETZEA

Diziplina profesionalari dagozkion edo fakultatiboen jarduera-arloari **dagozkion arauak eta jarraibideak** betetzen ote diren baloratzea, baita **konfidentzialtasunaren** eremuari berriaz lotutakoak ere.

Honelako jokabidetzat jotzen ditu:

- Diziplina profesionaleko edo erakundeak ezarritako **arauak, jarraibideak eta prozedurak** betetzea (erabiltzaileari informazioa ematea, konfidentzialtasuna, prebentzioa, kalitatea, antolamendua, etab.).
- Zehaztasuna eta zorroztasuna **datuak eta dokumentuak ekartzean eta betetzean**, baita horiekin lotzen diren informazio-sistemak maneiatzean ere.
- Erabiltzen duen **informazio sentikorrari** buruzko gogoeta eta diskrezioa.

Zorroztasun Profesionala

Arauk/gidalerroak betetzea

Hurrengo iterei dagokienez, eta lortu nahi duzun mailan eskatzen diren baldintzak kontuan hartuta, identifikatu itzazu zure merezimenduak eta ekarpenak:

Itema: Arauk/jarraibideak betetzea

Ekarpen-maila: Aukeratu

Balorazioa justifikatzen duten informazioa/datuak/argudioak ematea

Erantsi: Izena, Tm

Utzi fitzategiak eransteko edo [bilaketa](#)

2.ITEMA PRESTAKUNTZA/EGUNERATZE PROFESIONALA

Profesionalaren ezagutzen **eguneratze-maila** baloratzea, baita lanbidearen arloko aurrerapenen eta garapenen berri izateko **ahalegina eta dedikazioa** ere.

Honelako jokabidetzat jotzen ditu:

- Diziplinako edo jarduera-eremuko ezagutzak etengabe eguneratzea, eta diziplinako edo jarduera-eremuko berrikuntzen eta garapen berrien berri izateko interesa.
- Autoprestakuntzako eta prestakuntzako jarduerak egiteko kezka, bai eta hazteko edo garapen profesionalerako aukerak dakartzaten jarduerak egiteko kezka ere

Zorroztasun Profesionala

Arauk/gidalerroak betetzea

Prestakuntza/eguneratze profesionala

Hurrengo iterei dagokienez, eta lortu nahi duzun mailan eskatzen diren baldintzak kontuan hartuta, identifikatu itzazu zure merezimenduak eta ekarpenak:

Itema: Prestakuntza/eguneratze profesionala

Ekarpen-maila: Aukeratu

Balorazioa justifikatzen duten informazioa/datuak/argudioak ematea

Erantsi: Izena, Tm

Utzi fitzategiak eransteko edo [bilaketa](#)

INPLIKAZIOA ETA KONPROMISOA FAKTOREARI EGINDAKO EKARPENAK

Inplikazioa eta Konpromisoa faktoreak kontuan hartzen eta baloratzen ditu fakultatiboek beren erakundearen **helburuak betetzen** parte hartzeari eta laguntzeari dagokionez dituzten **jarrerak eta portaerak**.

Faktore hori honako azpifaktore hauetan egituratzen da:

- ❖ 9.1. TALDE-LANA
- ❖ 9.2. ERAKUNDEAREKIKO LANKIDETZA
- ❖ 9.3. HOBETZEKO JARRERA ETA ALDAKETARA EGOKITZEAK

Autoebaluzioa
 Eskatzaileek azaroaren 27ra arteko epea izango dute curriculum-merezimenduak eta autoebaluzioa bete eta aurkezteko, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ekainaren 19ko 1184/2023 Ebazpenean ezarritakoaren arabera.

A Blokea B Blokea **C Blokea**

Erakundearekiko inplikazioa eta konpromisoa

- Talde-lana
- Erakundearekiko lankidetzatza
- Hobetzeko jarrera eta Aldaketetara egokitzea

Baletzen dut badakidala autoebaluzioa bidali ondoren, ezin izango ditudala aldatu bidaltako datuak.

GORDE ZIRRIKORROA BIDALI AUTOEBALUZZIOA

TALDE-LANA

Azpifaktore honek item bakarra du:
 1. TALDE-LANA

Azpifaktore hori profesionalek Unitateko taldearekin eta Erakundeko edo kanpoko erakundeetako beste zerbitzu edo unitate batzuetako taldeekin **lankidetzan aritzeko eta koordinatzeko** duten gaitasuna da, haiekin elkarrekin eta harremanak izan ahal izateko.

Talde-lana balioesten du, hau da, unitateko taldearekin eta erakundeko edo kanpoko erakundeetako beste zerbitzu edo unitate batzuetako **taldeekin lankidetzan aritzeko eta koordinatzeko** gaitasuna, haiekin elkarrekin eta harremanak izateko.

Honako jokabide hauek hartzen ditu barnean:

- Informazioa trukatea, komunikatzea eta koordinatzea lantaldeko gainerako kideekin eta beste unitate batzuetako profesionalekin.
- Lankideekin eta beste profesional batzuekin elkarlanean aritzea eta haien eskaerei erantzutea.
- Unitateko jardueretan parte hartzea, inplikatzeko eta laguntzea.

Erakundearekiko inplikazioa eta konpromisoa

Talde-lana

Hurrengo itemari dagokionez, eta lortu nahi duzun mailan eskatzen diren baldintzak kontuan hartuta, identifika itzazu zure merezimenduak eta ekarpenak:

Itema: Talde-lana

Ekarpen-maila: Aukeratu

Balorazioa justifikatzen duten informazioa/datuak/argudioak ematea

Erantsi: Izena Tm

Utzi fitxategiak eransteko edo [bilaketa](#)

ERAKUNDEAREKIKO LANKIDETZA

Erakundearekiko inplikazioa eta konpromisoa

Talde-lana

Erakundearekiko lankidetzak

- Batzorde, epaimahai eta bestelako organo korporatiboak
- Zerbitzu-erakundeetako batzordeak, epaimahaiak eta bestelako organoak
- Osakidetzako lan-taldeak
- Erakundearen helburuekiko konpromisoa
- Zerbitzuko/unitateko jardueretan parte hartzea

Azpifaktore hori batzordeetan, epaimahaietan, lantaldeetan eta abarretan parte hartzean egituratzen da, eta *Curriculum Vitae* aplikazioaren eta item honen bidez egiaztatuko dira:

- 1.ITEMA:HELBURUEKIKO KONPROMISOA ETA ERAKUNDEAN PARTE HARTZEA
- 2.ITEMA: ZERBITZUKO/UNITATEKO JARDUERETAN PARTE HARTZEA

1.ITEMA:HELBURUEKIKO KONPROMISOA ETA ERAKUNDEAN PARTE HARTZEA

Itemak profesionalak erakundeak sustatutako ekimen, programa eta jardueretan **izandako lankidetzak eta parte-hartze aktiboa** baloratzen ditu, baita beste unitate edo erakunde batzuekiko **lankidetzak eta koordinazioa** ere.

Item honen balorazioak honelako jokabideak hartzen ditu kontuan:

- Talde/Unitate helburu eta proiektuetan **inplikatzeko**.
- Batzordeen, lantaldeen eta abarren zuzendaritza- edo **koordinazio-jardueretako** esperientziak. Beste unitate edo erakunde batzuekin koordinatzeko eta lankidetzak-arloak bilatzeko jarduerak.

Erakundearekiko lankidetzak

- Batzorde, epaimahai eta bestelako organo korporatiboak
- Zerbitzu-erakundeetako batzordeak, epaimahaiak eta bestelako organoak
- Osakidetzako lan-taldeak
- Erakundearen helburuekiko konpromisoa

Hurrengo itemei dagokienez, eta lortu nahi duzun mailan eskatzen diren baldintzak kontuan hartuta, identifikatu itzazu zure meretzimendua eta ekarpenak:

Itema: Erakundearen helburuekiko konpromisoa

Ekarpen-maila: Aukeratu

Balorazioa justifikatzen duten informazioa/datuak/argudioak ematea

Erantel: Izena Tm

Utzi fitxategiak eransteko edo [bilaketa](#)

2.ITEMA: ZERBITZUKO/UNITATEKO JARDUERETAN PARTE HARTZEA

Zerbitzuaren edo unitatearen **jardueretan lankidetzaz eta parte-hartze** aktiboa izatea, **ideiak emanez, protokoloak eta gida klinikoak diseinatuz**, eta proiektu-taldeak dinamizatu edo gidatu ahal izatea.

Honako jokabide hauek hartzen ditu barnean:

- Zerbitzuaren/Unitatearen jardueretan **parte hartzea**.
- **Protokoloak eta gida klinikoak** egiten edo zerbitzuko **jarduerak eta ekitaldiak** antolatzen laguntzea.
- Zerbitzua/Unitatea **lantaldeetan** integratzea.

Erakundearekiko lankidetzaz

Batzorde, epaimahai eta bestelako organo korporatiboak

Zerbitzu-erakundeetako batzardeak, epaimahaiak eta bestelako organoak

Osakidetzako lan-taldeak

Erakundearen helburuekiko konpromisoa

Zerbitzuko/unitateko jardueretan parte hartzea

Hurrengo itemei dagokienez, eta lortu nahi duzun mailan eskatzen diren baldintzak kontuan hartuta, identifika itzazu zure merezimenduak eta ekarpenak:

Itema Zerbitzuaren/unitatearen jardueretan parte hartzea

Ekarpen-maila Aukeratu

Balorazioa justifikatzen duten informazioa/datuak/argudioak ematea

Erantsi Izena Tm

Utzi fitategiak eransteko edo bilaketa

HOBETZEKO JARRERA ETA ALDAKETARA EGOKITZEA

Azpifaktore honek jarduerak etengabe aztertzeke eta ebaluatzeke prestasuna baloratzen du, norberaren jarduera edo erakunde osoarena hobetzeke esparruak eta aukerak identifikatzeko, eta jardueran, erakundearen eta emaitzetan aldaketak eta hobekuntzak egiteke proposamena eta laguntza ematea ere baloratzen ditu.

Azpifaktore bi item ditu:

- 1.ITEMA: HOBETZEKO JARRERA ETA ALDAKETARA EGOKITZEA.
- 2.ITEMA: ALDAKETARA EGOKITZEA

Erakundearekiko inplikazioa eta konpromisoa

Taldea-lana

Erakundearekiko lankidetzaz

Hobetzeke jarrera eta Aldaketetara egokitzea

Hobekuntzarako ekarpenak

Aldaketetara egokitzea

1.ITEMA:HOBETZEKO JARRERA ETA ALDAKETARA EGOKITZEA.

Profesionalak **etengabe aztertze**ko eta **ebaluatzeko prestasuna** baloratzen du, norberaren **jarduera** edo erakunde osoarena hobetzeko esparruak eta aukerak identifikatzeko, eta jardueran, erakundearen eta emaitzetan **aldaketak eta hobekuntzak egiteko proposamena eta laguntza ematea** ere baloratzen ditu.

Honelako jokabideak ditu:

- Norberaren jardueraren emaitzak **ebaluatzea eta hobekuntza-jarduerak garatzea**.
- Jardueran edo lan-eremuan sartzen diren aldaketak eta hobekuntzak **onartzea eta laguntzea**. Hobekuntzak eta berrikuntzak egokitzeko eta asimilatze gaitasuna. Unitatean edo erakundearen abian jarritako hobekuntza-jarduerak eta -proiektuetan **parte hartzea**.

The screenshot shows a web form titled 'Hobekuntzarako ekarpenak' (Proposals for Improvement). The form includes a header with the title and a sub-header with the same title. Below the sub-header, there is a text area for 'Balorazioa justifikatzen duten informazioa/datuak/argudioak ematea' (Information/data/arguments justifying the evaluation). To the left of this text area, there is a dropdown menu for 'Ekarpen-maila' (Proposal level) with 'Aukeratu' (Select) as the current option. To the right of the text area, there is a section for 'Erantsi' (Attachments) with fields for 'Izena' (Name) and 'Tm' (Type), and a button labeled 'Utzi fitxategiak eransteko edo bilaketa' (Leave files to be attached or search).

2.ITEMA: ALDAKETARA EGOKITZEA

Aldaketa onartzea eta aldatzeko prestasuna baloratzen du, eta emaitzak hobetzen lagunduko duten hobekuntzak eta berrikuntzak proposatzen ditu jardueran eta antolamenduan.

Honako jokabide hauek hartzen ditu barnean:

- Aldaketetara eta berrikuntzetara egokitzeko eta asimilatze gaitasuna, baita beste profesional batzuekin egiteko modu berriak **ikasteko eta/edo trukatzeko** erakutsitako gaitasuna ere.
- Bere jardueran edo lan-eremuan sartzen diren **aldaketak eta hobekuntzak bere gain hartzea** eta haiei laguntzea.

The screenshot shows a web form titled 'Aldaketetara egokitzea' (Adaptation to Change). The form includes a header with the title and a sub-header with the same title. Below the sub-header, there is a text area for 'Balorazioa justifikatzen duten informazioa/datuak/argudioak ematea' (Information/data/arguments justifying the evaluation). To the left of this text area, there is a dropdown menu for 'Ekarpen-maila' (Proposal level) with 'Aukeratu' (Select) as the current option. To the right of the text area, there is a section for 'Erantsi' (Attachments) with fields for 'Izena' (Name) and 'Tm' (Type), and a button labeled 'Utzi fitxategiak eransteko edo bilaketa' (Leave files to be attached or search).